

Iñauteriyen oroitzak.

Bost aldiz gogoratzen zaizkidan, ñauteriyak, orain dala ogeit'amar edo amabi urte Donostiyen jaitzen ziranak!

Zalduniote egunaz aurretiko arratsetik, ezagun izaten zan zer egun ondorengiak zetozen Donostirako; eta zortzi egunez lenagotik izan oi ziran erbestietatik ostatueta lekuen eskia; soñulari bikañak ibilli oi ziran gure karrika chukun eta egokietan, oso egokiro jantzi, eta doñu alai eder ariñak joaz.

¿Nola ez oroitu baldiñ urte ayetan, guztiya pakezko jolasa bazan, dantza, elkarchulio farragarrikuak, gañera berriz, agure zarrak gazte bihurturik ibiltzen baziran?

Zar gazterik etzan izan oi, eta ezta ere aberats eta beartsurik elkar-gandik berešten zanik; denak bat jaunak, denak bat: zan Donostiarren biyotzetikako mintzaera samurra, bada ni bezela geyago badira gaur Donostiyen, arrazoi au egipenduko lutekienak.

¿Ez alda egia, Marikallota eguneko arratsalde batez, Pablo Brunet zana, kayeko eche batian moldakaizki arrantzalien zirazko soñekua jantzirik irten zala, eta *Bulebar* deritzon ibildegí ederrean, bere gisako damacho aberaski batzuek chuliatu zituela, ayetan bat izanik orduan andregai, eta gero andre izan zana jaun orri biziya iraun ziyon bi-tartean?

¿Zerfarrak, zer farrak egin zituzten arratsalde artan aipatu detan ibildegí ederrean, araturik arki ziran ibildariyak!

Donostiyako aberatsetatik iya geyenezko aberatsena noski, arrantzale jantziyan, pikez, arpegiyak eta eskuak norenak ziran antzik etzeukaten gisan zikiñ, zikiñ egiñik.

Iñork etzuben ezagutzen, bañan berak aiñ egoki galdetzen ziyen

damacho eder ayei lenengo chulio aldiya egiñ ondoren, bañan..... ¿zein naiz ni?..... eta oek erantzuten ziyoten, zu, arrantzale zarpatzu bat, eta guri pakian uzten ez badiguzu, azkar ikusiko dezu erriko eche-ko zotarrinean zure burua.

Gis artan igaro zuben jaun ark ordu bete inguru ibildegian, eta asperaldi on bat eman ziyonian bere buruari, joan zan ezkalaproi zar aundiyaikin zalaparta zeriola, noizian bein lurrean amildurik, eta galde onela egiñaz; bañan, ¿zein naiz ni?

Soñekoz aldatu zanean, irten zan jakina dan bezela oso chukunkiro, ageturik ibildegian, ezer egiñ ez bazukien bezela; arrimatu zan andregayaren alhora, eta au asi zitzayon esanaz, zer estuasunak eman zizkan arrantzale jazkeradun zarpatzu zikiñ batek; ark erantzun ziyon samurtasun guztiyarekiñ, etzezala izan jazkerari begiratuaz, zein izan zitekien ezagutu nayeko iritzirik, zergatik, baietekiela izatia berak uzterik guchiyenekoen bat, soñeko argaz jantziya ikusi zubena.

—Bañan, ¿zein izango zan bada? diyo damacho eder ark, beretzako ustean zebillen galayari.

¿Bai alderitzazu erriko jaunetan, zure bizi mallan arki diranetatik, izan litekienik inor?

¿Orren zikiñ jazterik bururatuko alzitzaizun zuri? Ez deritzot: bañan ala izan baziña ere, ez nuben chiništuko.

—Badazuk uste etzenduen bat zan, diyo galai ark, soñeko arreakin zugana etorri dana, eta chiništu nai badezu, ziñetan esaten dizut neroni nitzala.

Arrazoi au aditu zutenekin bat, algarazler eztanda egiñik, ekiñ ziyoten aren aldamenen zebiltzan ibildari guztiyak.

Erdal esaerak diyona: *el hábito no hace al monje*; eta itz oek oroitu arazten dirate, Pasai aundiyan emakume batek beste bati arratsalde batian eman ziyon erantzuer motz eta egokiya.

Ipui bat egiten ari naizela iruditzen zait, bañan ala iruditu arren, au irakurtzen dutenai esango diyet, egiya dala aitortuko dutenak badi-rala gaur ere aipatu detan erri ortan, eta, baita Donostiyan ere.

Bada, esan detan erriyan bazan batelzai emakume bat, arpegiz chit itzusiya, Rafaelaren izenarekin ezagutzen zana, bañan bere izatez ona, eta garbiya.

Egun batez beste askotan oi zuben bezela, bere batelarekin zeguen norbait, edo norbaitsuen zai, eta onen gisa zeuden beste geyago ere, eta oetan bat, guztiz emakume goitiritzi arro, gazte chuliatzallia zan.

Onek ekin ziyon Rafaelari chuliuana, esanaz, sisak jana zeukala sudur punpullo itzusi ura, eta ikusirik aĩn arpegi desegokiya, etzitekiela iñor arrimatu argana; bañan nola itz oek esan zitubenak zeuzkan erriko dendak zuloz betiak abe zar bat pipiyak oi duben bañan geyagorekin, naiz bera izan apegĩ azal eder eta leunduna, etzuben bestiak mingaña geldirik iduki, eta egokiera onez erantzun ziyon onela.

Begira: zu, orren ederra izan arren begi aurrietarako, itzuskeri askoren jabe agertzen zera, eder agertu bear zendukien lekuetan, eta ichura charrian; bañan erri ontako guztiyak dakiten bezela, nere ichura dendan dago guztiz ondo barrendua, bañan zuria, iñon ez. Orra nola larru azalian eta jazkeran ez dan ezagutzen zeĩn dan aberatsa eta zeĩn ederra; kontu egin dezayokegu mingañari, nola-nai chirriřtatu ez dediñ.

Esan det lenengo errenkadetan ere, chit gogoangarriyak dirala Donostiyan urte batzuetan jaituak izan diran iñauteriyak.

¿Nork esan bear ziran gaur neri, jai paketsu alaigarri ayek, biurtu bear zutela ezer ezera?

Urte ayetako iñauteritan esan baziraten iraupen guchikuak izango zirala jai ayek, ez nuben chiniřtuko, ez ta..... ez dakit nork esan bazirana ere.

Zalduniote egun batez ondo goguan daukat, Errege *mumu* irten zala Kandido Soraluze jauna, gurditza eder baten gañian chit egoki eta guztiz aberastasun aundiko jazkerarekin apainduba; bere ondoren zijuazkiyelarik, *Neptuno*, *Errege Bako*, *Jupiter*, *Saturno* eta *Urano* beren gurditza eder, eta egokiro antolatuetan.

Oen guztiyen aurrelari zaldigañetan berriz; Eustakio Inziarte, Manuel Merkader, Iribas jaunak, eta ez naiz oroitzen bañan uste det, oetan zala Paulino Inziarte jauna ere.

Oñezkuetan beren buruak agertu zituztenak ziran Buenabentura Soroa zana, ijito taldearen buru egiten zubena, Andres Martinez zana, bere sendi osoarekiñ eche aberatseko echekoandre antzera, Manuel Leaburu, Manuel Bago, Praxedes D. Altuna, Anjelito Minondo zana, Joře Insausti, gaur Errenteriyen alkate daguen donostiar jatorra, Eusebio Echeberria, Buztamante zana, eta..... bañan, izen guztiyak zeĩn gogoratu? Orduan atera ziran *kakajariyo* guztiyen izenak, lumari esan arazi bear banizka, aldi bateko lana emango niyoke nere buruari, eta guchiyago ez berriz irakurleairi.

¿Noiz berriz elkartuko gera orduan beziñ batasun onean donostia-

rrak, eta Donosti ontan bizi geran arrotz, Uri onen inguruetako erri chikitarrak?

Eta, ¿noiz esango degu, elkarri diyogun gorroto zikiña illik, aurretiryokuak jarri ziguten bide zuzenari jarraituko diyogula?

Etzait iruditzen mingarriya izan arren, orduko adiškide biyotzetikakorik geregandu litekienik ostera, bada, elkargana gezurra diruri bañan, guztiz gorrototurik arki gera urte guchiz onuntztik bañan.....

Alaz guztiyaz ere
oroitzeak berak,
pistutzen dit biyotza
gaur, nola euskerak.

Bai; oroitzia bakarrak pistutzen dit biyotza, bañan, ¿non dira orduko gazte talde jostalari eder ayek? ¿Eta, non, Inazio Tabuyo zana, gaur Donostiyako alkate daguenaren aita? Oraindik ere uste det au bizi balitz, moldatuko giñakiela zerbait. ¡Zer gizon atsegiñ, eta jostalariya zan gizagajua! Agure kazkazuriyatetik asi, eta trosetan arki ziran aurretarañoko guztiyak maite zuten aita on bat bezela, Donosti zarra deritzon leku maitagarri ontan.

Onekin batian jai aldi ayetan maisutza egiten zuten Raimundo Sarriegi eta Migel Salaberria jaunak bizi dira, eta urte askoko biziya osasunakiñ opadiyotet. Oek ere, ¿zenbat bider oroitzen ote dira lagun maitagarri artaz?

Bai; oek eta orduko langilliak baziruditen, seaska bateko maindiriakin gošatutako semiak; eta, ¿ez al ziran ala? Agiyan, ¿alda iñor ukatuko lukienik, Ama Euskaran bularretikako iraiñ gozua edozkiyaz aziyaz ziranik?

Ez; eta gañera, Gernikako Arizpean, onen ostoak ematen duten itzalpean ezkur gañean egonak guztiz gozoro, aur bat amaren magalean onen igortzi maitakitsuz bulartean eskuchuak sarturik egon oi dan bezela. ¡Zer gauza gogoangarriyak bururatu zaizkitan iñauteri ayen bitartez!

Aurtengo iñauteritan, ¿zer jai aldi ikusiko ote dira? Goguan iduki gintzazkegunik ezer, ez; iru egunetako arratsaldetan, muzorro zarpatzu batzuek, eta leku ichiyetako muzorro dantzak, eta ez len esan detan bezelako pichi ederrez apaindutako muzorro jostalari, paketsu eta egokirik.

Iñauteri ayekgatik esan gentzake, illerriko ate buruan irakurtzen deguna. ¡Ill ziran!